

BALIO PROPOSAMENA

- Zer behar edo arazo konpontzen dugu?

Egunerokotasunean sortzen zaizkigun arazoak konpontzen ditu reciclAPP-ek. Gainera, ongi birziklatzeak berebiziko garrantzia du eta ongi egin behar den zerbait da, denen onerako, bai gurerako eta ingurunearentzako baita.

- Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Gure helburua ingurumena hobetzea da, eta honek beste enpresetatik bereizten gaitu, hots, birziklatzea ikastearekin batera, ingurumenari lagunduko diogula. Gainera, honen bidez eragingo ditugun aldaketak, denon onurarako izango direnez eta aldaketa horiek gertatzea bezero edo gizartearen interesekoa izango denez, gure aplikazioa deskargatu nahiko dute.

Gure bezero mota bakoitza arrazoi desberdinengatik egongo da gure aplikazioa erabiltzeko prest:

- **Bezero erabiltzaile arrunta:** Gure aplikazioa erabiltzeko prest egongo da birziklatzeari buruzko gomendioak eskuragarri izango dituztelako eta ingurumenari buruz dituzten kezkak argituko dituztelako. Gainera, abantaila horiek beste mota bateko gure bezeroak direnek eskainiko dizkiete. Adibidez, enpresa batzuek deskontuak eskeiniko dizkiete gure plataformaren bidez bezeroei. Bezero hauek publizitatea ikusteko prest egongo dira. Aipatzekoa da bezero hauek aplikazioa doainik izango dutela eskuragarri.



- **Premium erabiltzailea:** Bezero hauek arruntak bezala izango dira baina publizitatea ez jasotzeko aukerarekin eta deskontu gehiago izatearekin. Erabiltzaile arruntak ez bazala hauek ordaindu behar izango dute.

Ditugun lau bezeroetatik bi, enpresen taldekoak dira. Honako hauek dira:

- **Enpresa kolaboratzaileak:** Gure plataformaren bidez deskontuak emango dizkiete beste bezeroei haienak ere izateko.
- **Publizitateko enpresak:** Beste enpresa batzuk, sortuko dugun aplikazioaren bitartez haien publizitatea zabalduko dute hauek ere bezero berriak lortzeko.

Deskontuak jarriko diteztenentzako balio proposamena bezeroak fidelizatzea eta beraien erantzukizun korporatiboa sendotzea dira.

Publizitatea jarriko dituztenentzako balio proposamena honako hau izango da: ingurumenari buruzko kezka dituzten bezero arruntak erakartzea publizitatearen bidez ingurumena hobetzeko.

